

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 42 zerbitzu-gutun gehiago inskribatu dira Nafarroako administrazio publikoek eskaintzen dituzten prestazioen kalitatea hobetzeko

*Kalitatezko kudeaketako tresna horietako ehun bat indarrean daude eta ia erdia hezkuntza-zentroei dagokie*

Jueves, 27 de junio de 2013

Foru Komunitateko administrazio publikoen 2013ko lehen sei hilabete hauetan guztira 42 zerbitzu-gutun gehiago inskribatu ditu konpromiso eta adierazleekin eskaintzen dituzten prestazioen kalitatea hobetzeko, Nafarroako Gobernuaren [politika nahiz zerbitzu publikoen ebaluazio-erregistroak](#) egindako txostenetik ondorioztatzen denaren arabera.

Seihileko honetan erregistratutako zerbitzu-gutun guztietatik, 20 Hezkuntza Departamentuarenak dira, 14 [Iruñeko Udalarenak](#), 5 [Iruñerriko Mankomunitatearenak](#), 2 Gizarte Politiken Departamentuarenak eta 1 Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarena.

Inskripzio berri horiekin 103 dira indarrean dauden zerbitzu-gutunak, eta haietatik 43 ikastetxe publikoei dagokie. Erregistroan ere kalitatearen beste kudeaketa-tresna batzuk ageri dira, eta haien artean zerbitzu publikoen kalitatearen 83 ebaluazio azpimarratu behar dira; eskaria analizatzeko nahiz asebetetze-mailaren 62 azterketa; 52 kexa eta iradokizun; eta politika publikoen 31 ebaluazio.

Guztira, 368 ekimen inskribatu dira politikak eta zerbitzu publikoak ebaluatzeko Erregistroan. Haietatik % 85 Nafarroako Gobernuarenak dira, % 12 toki-erakundeenak, % 1 enpresa publikoarenak eta % 2 beste administrazio batzuenak.

### Politikak eta zerbitzu publikoak ebaluatzeko Erregistroa

Politikak eta zerbitzu publikoak ebaluatzeko Erregistroak jasotzen ditu, Nafarroako administrazio publikoek politika publikoen ebaluazioari buruz eta zabaltzeko asmoz beren zerbitzuen kalitateari buruz garatzen dituzten ekintzak.

Nahitaezkoa da Foru Komunitateko Administrazioaren edozein organok egiten dituen ekintzak inskribatzea, eta borondatezkoa toki-erakundeek, enpresa publikoek, fundazioek edo beste zenbait administrazioek egiten dituzten ekintzetarako. Edozein herritar edo erakundek [erregistro hori kontsulta](#) dezake.